


## Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dut

Argia aldizkariaren 2221 alean Onintza Iruretak artikulu interesgarria idatzi du elebitasun pasiboari buruz, eta honek nolako aukerak zabaltzen dizkigun euskal hiztunei, eta erdaldunei euskarara hurbiltzeko.

Informazioa gehiago [hemen](#)



## Autoestimua



Imanol Miner hizkuntza teknikariari elkarrizketa egin dio Berriako Mikel Peruarena kazetariak Topagunearen hausnarketa prozesuaren harira, eta, besteak beste, dio "lantokian sor liteke euskara elkarte"

Informazioa gehiago [hemen](#)

## Hizkuntza-kudeaketaren onurak

Buruntzaldeko udalek iaz abiatutako kanpainari eutsi, eta hizkuntza-kudeaketari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Aurtengoan, eredu guztietako ikasleei eskaini zaie saioa; izan ere, hizkuntza-kudeaketa guztioi eragiten digun aldagaia baita, ez soilik hizkuntza bat edo beste dakitenei.

Hitzaldiaren helburu da hizkuntzen garrantziari buruz hausnartu, eta ikustarazi hizkuntzak ikasi eta erabiltzeak nolako onura dakarkion norberari eta enpresari. Horretarako, gizartean oso errotuta dauden hainbat ideia jartzen dira kolokan.

Ba al zenekien...?

Oso gutxi direla hizkuntza komunitate bakarrez osatutako estatuak (Europar bakarra, Islandia, eta euskarak baino hiztun gutxiago ditu, 200.000)

Estatu Batuetako konstituzioak ez duela aipatzen zein den bertako hizkuntza ofiziala?

Katalana munduko hizkuntzen artean 88. dela hiztun kopuruan?

Euskara hiztun gehien dituzten %10 hizkuntzen artean dagoela, eta, beraz, hizkuntza ertaina dela?

Espainiako biztanleen %40 eremu elebidunetan bizi dela, eta horietako biztanle gehienak elebidunak direla?



Buruntzaldeko udalek ideia lehiaketa antolatu dute lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoaren aurrera begirako bidea definitzeko, eta Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren proposamena aukeratu dute. Proiektu horren oinarriak dira:

Gizartea eta eragileen aldeko jarrerak indartu eta ikustarazi.

Enpresetara haien beharretatik abiatuta hurbildu, eta behar horien eraberako eskaintza egin



## Lankide berriak

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)